DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Pertsonen Kudeaketa
Gestión de Personas

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481000 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

Digitalki Sinatua
Firmado Digitalmente
DONOSTIA, 2022KO APIRILAK 07.
SAN SEBASTIAN, 07 DE ABRIL DE 2022.

**DONOSTIAKO UDALEKO 63 ADMINISTRARI PLAZA BEHIN BETIKO BETETZEKO DEIALDIA.**

Epaimahai Kalifikatzaileak, 2022ko apirilaren 5ean egindako bileran, izangaiei honako **informazioa** ematea erabaki du:

1.- Oposizio faseko bigarren ariketaren (praktikoa) behin betiko emaitzak maiatzaren lehen hamabostaldian argitaratzea aurreikusten da.

2.- Lehiaketa faseko merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko epea maiatzaren bigarren hamabostaldian irekiko dela aurreikusten da.

3.- Merezimenduen alegazioa eta egiaztatzea, 7.4.1 oinarri orokorrean ezarritakoa betez, horretarako emango den epearen barruan egin beharko da; beraz, gogorarazten da **izapide hori ezin dela egin epea ireki arte**.

4.- Merezimenduak eta euskara ezagutzak egiaztatzeko moduari buruz jasotako kontsulten aurrean, gogorarazten da oinarri orokorretako Bigarren Xedapen Gehigarriak honako hau ezartzen duela:

*“Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluaren arabera, Donostiako Udalak baliabide elektronikoen bidez egingo ditu interesdunen datuen eta dokumentuen beharrezko egiaztapenak eta kontsultak, betiere datu eta dokumentu horiek Administrazioak egin baditu edo bere esku badaude, bai eta hautaketa-prozedura arautzen duen araudiak eskatzen duen beste edozein egiaztapen eta kontsulta ere. Beraz, Udalak ez dizkie interesdunei elkarreragingarriak diren datuak eskatuko, salbu eta interesduna aurka agertzen bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.*

*Hautaketa-prozesu bakoitzean, interesdunei adieraziko zaizkie Udalak zuzenean jasoko dituen dokumentuak”.*

Ildo horretan, izangaiei jakinarazten zaie Donostiako Udalak ondoren adierazten diren datuak/dokumentuak kontsultatu edo bildu ahal izango dituela, eta, beraz, ez direla lehiaketa fasean aurkeztu beharko,

**CONVOCATORIA PARA LA PROVISIÓN DEFINITIVA DE 63 PLAZAS DE ADMINISTRATIVO/A DEL AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN.**

El Tribunal Calificador, en sesión celebrada el día 5 de abril de 2022, ha acordado facilitar la siguiente **información** a las personas aspirantes:

1.- Se prevé que la publicación de los resultados definitivos del segundo ejercicio (práctico) de la fase de oposición se producirá durante la primera quincena del mes de mayo.

2.- Se prevé que el plazo para alegar y acreditar los méritos de la fase de concurso se abrirá durante la segunda quincena del mes de mayo.

3.- La alegación y acreditación de los méritos deberá realizarse dentro del plazo que se otorgará al efecto en cumplimiento de la base general 7.4.1, por lo que se recuerda que **no puede realizarse dicho trámite hasta que se abra el plazo**.

4.- Ante las consultas recibidas sobre la forma de acreditación de los méritos y de los conocimientos de euskera, se recuerda que la Disposición Adicional Segunda de las bases generales establece lo siguiente:

“*De conformidad con el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el Ayuntamiento de San Sebastián realizará por medios electrónicos las comprobaciones y consultas necesarias de los datos y documentos de las personas interesadas que hayan sido elaborados u obren en poder de la Administración, así como cualquier otro exigido por la normativa reguladora del procedimiento de selección. Por tanto, el Ayuntamiento no solicitará a las personas interesadas aquellos datos que sean interoperables, salvo que la persona interesada se oponga, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.*

*En cada uno de los procesos selectivos, se irá indicando a las personas interesadas aquellos documentos que serán recabados directamente por el Ayuntamiento*”.

En este sentido, se informa a las personas aspirantes que el Ayuntamiento de San Sebastián podrá consultar o recabar los datos/documentos que se señalan a continuación, por lo que no deberán ser

10740n XVII

interesdunak aurka egiten ez badu behintzat.

Gaur egun eskuragarri dauden bitartekoak kontuan hartuta, dokumentu horiek honako hauek dira:

- Unibertsitateko eta unibertsitateaz kanpoko titulu ofizialak.
- Euskarako ziurtapenetarako hizkuntza-eskakizunak.
- It Txartelen ziurtagiriak.

Kontsultatu “Datu tratamenduari aurka egiteko eskubidea” izapidea www.donostia.eus webgunean.

presentados en la fase de concurso, salvo que la persona interesada se oponga.

Teniendo en cuenta los medios disponibles en la actualidad, esos documentos son los siguientes:

- Títulos universitarios y no universitarios oficiales.
- Perfiles de certificaciones de euskera.
- Certificaciones IT Txartela.

Consulte el trámite “Derecho a la oposición del tratamiento” en la web: www.donostia.eus

Donostian, sinaduraren egunean

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN IDAZKARIA

Alfonso Jiménez Grandes